

Gatibu

Gatibu taldea 2000. urte inguruan sortu zuten Alex Sardui abeslariak eta Haimar Arejita gitarristak. Gatibu taldea Gernikan, Bizkaian sortu zen.

Taldeko partaideak hauek dira: Alex Sardui abeslaria, Gaizka Salazar bateriajolea, Haimar Arejita gitarra- jotzailea eta Mikel Caballero baxu-jotzailea. Batizen ordeaz, Iñigo Anton gitarrista hasi zen taldea laguntzen.

2002an Gatibuk berehala kaleratu zuen beraien lehen diskoa, Zoramena izenekoa.

Baga-Biga izeneko diskoak, 2008an argitaratua, indartu egin zuen Gatiburen lekua euskal talde arrakastatsuenen artean. “*Bang-bang txik-txiki bang-bang*“, “*Ze, ze, ze!*“, “*Pailazo*” edo “*Eztanda egin arte*” kantuak berehala hedatu ziren.

Disko onenaren eta kantu onenaren Gaztea saria, “*Bang-bang txik-txiki bang bang*” izeneko kantuarekin irabazi zuten.

Kantu ospetsuak hauek dira: Euritan dantzan, Bixotzetik, Aske maitte, Bang Bang Txiki-txiki Bang Bang, Urepel...

Hau da guk aukeratu dugun kanta (Aske Maitte)

Aske maitte

<https://www.youtube.com/watch?v=L2jSZ-lvhmE&t=11s>

Aske maitte kanta

Suziri bi baño ez gara gu
bata bestien aurrien.
Melodi bat entzuten da urrunien

hurbiltzen zara esanez:
gaba deike dekogu
ta bere sekretuek
geu bixontzat dire ie, ie, ie
gabien.



Suaren inguruen
gorputz bi bat eginda
bata bestearena
ze polittek garen
dantzan biluzik
ta izerrak.

Burue bero
begixek gorri
zu eta ni
gau txori bi
ez dago katerik.

Nahi dogunien
nahi dogulako
aske maitte
aske bizi
bizitza zoro hau.

A ze gozoa zaren
izerditan
ur gazi zaporie.
Eta ze ondo nagoen
izerran ganien
zugaz kantetan dodanien,
gabien.

Suaren inguruan
ixil-ixilik gaba,
itzal bi ikusten dire
Venuserako txartela
elkarregaz hartunde.

Burue bero
begixek gorri
zu eta ni
gau txori bi
ez dago katerik.

Nahi dogunien
nahi dogulako
aske maitte
aske bizi
bizitza zoro hau.

Egileak: Naroa Zabaleta eta Joseba Etxaniz